


Hizkuntzen **ALDAKETA** piztu...



... **familian.**



... **lanean.**




... **ezezagunekin.**

... **hurbilekoekin.**

HIZKUNTZEN ALDAKETA PIZTU!


**Familiar, lanean, hurbilekoekin,
ezezagunekin euskara gehiago
erabiltzeko**



- 1. Gogoeta.** Aldaketa ez da hain naturala; zure baitan gogoetatzeak eta zure inguruan mintzatzeak lagunduko zaitu.
- 2. Prestaketa.** Aldaketa ez da inprobisatzen; hobeki prestatzeko aukerak existitzen dira (tailerrak, bideoak, infografiak...).
- 3. Progresibitatea.** Lorgarriak eta egingarriak zaizkizun aldaketekin hasi, neurriko ahaleginak lehenetsiz.
- 4. Optimismoa.** Ez da beti errex izanen, baina lorpenak baloratu eta ez ahantz urratsez urrats lortuko duzula.
- 5. Jarraitasuna.** Errepikapenaren indarraz dira ohiturak aldatzen; ez etsi eta eutsi ariketari aldaketari.
- 6. Plazera.** Hasieran artifiziala edo bitxia bada ere, laster gaitzizko duzu trantsizio fasea eta gozatuko duzu euskaraz gehiago bizitzea.
- 7. Desafioa.** Milaka herritar ibiliko dira aldi berean ariketa berdina egiten; izanen duzu hortarako babesak.

BEREZITASUNAK KONTUTAN HARTU

Ingurune bakoitzak baditu elkarrizketa mota propioak.



INGURUNE PERTSONALEAN:

- Hizkuntza ohitura errotuak eta aspaldikoak izan daitezke.
- Afektibitate gehiagoko harremanak dira gehienetan.
- Elkarrizketa mota anitzak gara daitezke.



INGURUNE PROFESIONALEAN:

- Hizkuntza ohitura kodifikatuak izan daitezke.
- Lan giroaren arabera harremanak dira gehienetan.
- Hizketa tekniko-profesionalak gainera har dezake.



INGURUNE HURBILEAN:

- Hizkuntza ohitura aldakorak izan daitezke egoeraren arabera.
- Kortesia eta bizikidetzako harremanak dira gehienetan.
- Elkarrizketa **labur** eta **errepikakorak** izan daitezke.

INGURUNE EZEZAGUNEAN:

- Hizkuntza ohiturak baino gehiago, **errepresentazioek** dute gainera hartzen.
- Bizikidetzako harremanak dira gehienetan.
- Elkarrizketa **labur** eta **arinak** izan daitezke.

INGURUNE PERTSONALA:

FAMILIA, LAGUNAK...

Hizkuntza Aldaketa pizteko urratsak:



1.Zerrendatu.

Norekin egin dezaket euskaraz, komunikazioa trabatu gabe (hitz egiten duen edo ulertzen duen familiakoa / laguna)?

2.Hautatu.

Horien artean, norekin aldatu nahi dut hizkuntza? Subjektiboak diren arrazoietan oinarritzea hobetsi dezaket (gustatuko litzaidake, goxokiago sentituko nintzateke...).

3.Adostu.

Aldaketaren urratsak, baldintzak, iraupena... elkarrekin definitzen ditugu.
Elkarrikeria elebidunei ere atea irekitzen diegu.

5.Tartekatu. Egunean zehar erritual batzuk sortu, haurrekin adibidez otordueta edo oheratzerakoan euskaraz bakarrik arituz.

4.Proposatu.

Proposamena noiz eta nola luzatuko diodan ongi hautatzen dut.

INGURUNE PROFESIONALA:

LANKIDEAK, ZUZENDARITZA,
BEZEROAK, PARTAIDEAK...

Hizkuntza Aldaketa pizteko urratsak:



1.Adostu.

Hizkuntzen erabileraren gaia aipatu eta arau bat adostu (bakoitzak nahi duena erabiltzen du eta zaintzen du ulertua dela).

2.Babestu.

Hierarkiak eta langile ordezkariak onartu eta asunituko duten hautua dela segurtatu.

3.Komunikatu.

Barne zein kanpo harremanetan, solaskideei jakinarazi euskara irizpidea zein den.

4.Egokitu.

Egoeren arabera, metodologia desberdinak erabili (Eusle, Ulerrizketa, Ahobizi / Belarriprest txapak...).

5.Zaindu.

Kide berriaren harrera (ulertzen edo jakinean ez dena lagundu) eta elkar ulertzea bermatu (komunikazio bisuala prestatu).



INGURUNE HURBILA:

AUZOAK, EGUNEROKO KOMERTZIO
EZAGUNAK, IKASTETXEA,
HAURTZAINDEGIA, ELKARTEA...

Hizkuntza Aldaketa pizteko urratsak:

1.Aipatu.

Euskaraz gehiago aritzeko gogoia adierazi eta elkarrizketa eredua finkatu. Euskaraldia dela eta, probestu ohiturak aldatzeko, zure ingurukoei zure nahia partekatzeko.

2.Mailakatu.

Konfiantza handituz euskarazko hitz gehiago sartu pixkanaka euskara geroz eta gehiago erabiltzeko.

3.Eutsi.

Euskaraz segi, parekoak ez duela ulertzen adierazi arte edo erdarara pasatzea galdetu arte: orduan erabaki estrategia.

4.Egokitu. Ez badu ulertzen, erdarara pasa, noizbehinka euskarazko hitz edo erranaldi batzuk tartekatuz (agurrak, ohiko hitz ulertuak...).

Ukertzen badu, elkarrizketa elebidunak posible dira.

5.Saiatu.

Esaldi sinpleak eta anitzetan agertzen direnak "ikasi".
Adb: ikastolan: "eguna nola pasa da?" "Zozokeri anitz egin al ditu?" ...



INGURUNE EZEZAGUNA:

SALTZAILEAK, ADMINISTRAZIOKO AGENTEAK, KARRIKAN GURUTZATZEN DUGUN JENDEA, GARRAIO PUBLIKOETAKO GIDARIAK...

Hizkuntza Aldaketa pizteko urratsak:

1

1.Integratu.

Ez fidatu itxurari, testuinguruari edo egoerari; euskara denekin partekatzeko engaiamendua hartu.

2

2.Ausartu.

Lehen hitza euskaraz, ozen eta argi, partekatzeko asmoz.

3

3.Egokitu. Ez badu ulertzen, erdarara pasa, noizbehinka euskarazko hitz edo erranaldi batzuk tartekatuz (agurrak, ohiko hitz ulertuak...). Ulertzen badu, elkarrizketa elebidunak posible dira.

4

4.Eutsi. Euskaraz segi, parekoak ez duela ulertzen erran arte edo erdarara pasatzea galdetu arte: orduan erabaki estrategia.

5

5.Asumitu.

Erantzun txarra ukanez geroz, justifikazioetan ez sartu eta isiltasunez neutralizatu.



LABURBILTZEKO

HIZKUNTZA OHITURAK EZ DIRA ALDAEZINAK.

Gure praktikez **kontziente** bagira eta euskara gehiago erabiltzeko **nahikeria** baldin badugu, zentzu horretan urratsak egin ditzakegu. Errepikapenaren indarrak, jokaera berria bilakatzen da portaera automatikoa.

Maiatzaren 15etik 25era, 11 egunez, Euskal Herri osoan milaka herritarrek euskara gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin aritzeko **engaiamendua** hartuko dute.

Eragin bikoitza duen ariketa soziala da: eragin kolektiboa duen desafio pertsonala da eta eragin pertsonala duen desafio kolektiboa.

Jauzi hori **taldean** egiteak indartuko zaitu, dudarik gabe. Baina ez du dena egingo; zuk ere egin beharko duzu **zure bidea**.

Aitzineko orrietan zenbait **aholku** zerrendatu nahi izan ditugu; beste asko aipatzen ahal genituen. Baina garrantzitsuena da desafio hori **joko bat** bezala hartzea eta **plazera** begiztatzea.

Goza euskaraz **gehiago**, ausartu euskaraz **gehiagorekin** eta mintza euskaraz **gehiagotan**.

Aldaketa zure baitan hasten da!

Jendeen arteko elkarrizketez gain, zure hizkuntza hautuak biziaren beste hainbat eremutara ere aplikatzen ahal dituzu:

- Denda bat hautatzean, Bai euskarari edota Bikain ziurtagiriak edo Euskal monetaren 3. desafioa duten establezimenduak lehenetsi.
- Telefonoaren erantzungailua euskaratu.
- Web nabigatzailea euskaraz konfiguratu.
- Euskal hedabideen bidez informatu.
- Euskal kultura gozatu.
- ...

